

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Rentspot-ren funtsezko bazkideak gu gara, talde hau osatzen dugunok. Bazkideak gara bakoitzak proiektuari gauza ezberdinak aportatu diezazkiogulako:

Joshua Logacho → Informatikako ingeniaria da. RentSpot plataforma garatuko luke, erabiltzaileak babesteko gomendio-algoritmoak eta segurtasun-neurriak sortuz.

Andoni Val → Enpresen Administrazioan lizentziatua da. RentSpot-en hazkundera estrategikoki planifikatuko luke, aukerak identifikatuz eta funtsezko aliantzak ezarriz; gainera, enpresaren finantzak kudeatuko lituzke.

Iraia Moral → Diseinatzaile Grafikoa eta Erabiltzaile Esperientzia da. RentSpot-en identitate bisuala sortuko luke, erabiltzailearen esperientzia hobetzeko interfaze intuitibo bat diseinatzuz. Horrela, bisualki erakargarriak diren marketin-kanpainak garatuko lituzke, erabiltzaile gehiago erakartzeko.

Manar Dahnou → Zuzenbide Teknologikoan espezializatutako abokatu da. Lege-aholkularitza eskainiko luke araudia betetzen dela bermatzeko, eta RentSpot-era egokitutako kontratuak idatziko lituzke. Legezko eztabaidak konponduko lituzke eta enpresaren interesak babestuko lituzke.

Javier Molina → Marketin digitalean espezialista bat kontratatuko genuke. Online marketineko estrategiak diseinatuko lituzke RentSpot-en ikusgarritasuna hobetzeko, eta publizitate-kanpainak kudeatuko lituzke.

Honekin gure RentSpot proiektua aurrera ateratzeko baliabide guztiak ditugu.

RentSpot funtziona dadin ezinbestekoa da hornitzaileek betetzen duten rola. Hauek dira gure hornitzaile nagusiak:

- Correos, SEUR eta DHL bezalako enpresak arduratuko dira logistikaz eta garraioaz, hau da, RentSpot bidez alokatzen diren produktuen edo artikuluen banaketaz eta garraioaz.
- GoiEner teknologia-hornitzailea da. RentSpot-en funtzionamendurako, aplikazio mugikorren garapenerako eta lineako ordainketa-sistemarako beharrezkoa den plataforma teknologikoa edo softwarearen garapena hornitzen duen enpresa da.
- Seguros Bilbao aseguru-hornitzailea da. RentSpot bidez alokatzen diren produktuei estaldura ematen dieten bazkide aseguratzaileak dira. Funtsezkoa da segurtasuna eta babesa bermatzeko, bai erabiltzaileentzat, bai enpresarentzat.
- Eulen Limpieza garbiketako eta mantentze-lanetako enpresa da. Mantentze erregularra edo garbiketa behar duten gaiez arduratzen da. Bezeroekin harremanetzeko arreta-zerbitzua indartuko genuke. Bezeroarentzako zerbitzu arin eta adi batek, hainbat komunikazio-kanal dituena, erantzun azkarrak eta behar bakoitzerako konponbide eraginkorrak bermatzen ditu, gure erabiltzaileentzat ustekaberik gabeko esperientzia eskainiz.